



Arartekoaren ebazpena, 2007ko apirilaren 23koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio herritar baten eskaerari erantzun diezaiola eta gizarte txostena egin dezala, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko araudian ezarritako xedapenei egokituta.

Aurrekariak

1.- Kexa Caritas Vitoria erakundeak aurkeztu zuen, (...)ren izenean. (...) jaunak, gizarte laguntzailearekin egindako elkarrizketaren unean, gizarte txostena eskatu zion Gasteizko Udalari, errotzeagatiko egoitza baimenaren eskaerari eransteko. Eman zioten txostenak ez zuten betebeharrerako bat jasotzen: lan kontratua izatearen betebeharretik salbuetsita gera zedin zioen gomendioa. 2006ko otsailaren 27an, Gasteizko Udalari berariaz eskatu zion hori barne hartuko zuen txostena egiteko. Ez zuenez horrelakorik jaso, 2006ko martxoaren 16an, Gasteizko Udaleko Gizartegintza Sailari zuzendu zitzaion idatziz, eta Udalaren berariazko ebazpenik ez zuela jaso jakinarazi eta, horregatik, bidezko ondorioak izan zitzaizkien, espedientearen xedearen egiaztapena eskatu zuen.

(...) jauna ekuadortarra da, eta errotzeagatiko egoitza baimena eskatu zuen Gobernuaren Arabako Ordezkaritzan, 4/2000 LOk –atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunak eta euren gizarteratzea arautzen duena, abenduaren 30eko 2393/2004 EDk onartutakoa– garatzen duen Araudiko 45. 2 b) eta 2 c) artikulua aplikatuz. Araudi horrek zehazten ditu Espainian dauden atzerritarrei, errotzea dela eta, aldi baterako egoitza baimena, bisaren beharrik gabe, eman ahal izateko kasuak. Baldintzen artean dago Espainian gutxienez hiru urtez bizi izana egiaztatzea, Espainian bizi diren beste atzerritarrekin famili lotura dagoela egiaztatzea edo, bestela, lan kontratu bat edo gizarteratzea egiaztatzen duen txosten bat, ohiko egoitza duen herriko udalak emandakoa.

(...) jaunak baimen hori eskatu zuen Espainian bizi zela eta famili loturak zituela egiaztatzerakoan; izan ere, bere alaba (...)rekin bizi da, eta berak lan eta egoitza baimena du eta bere ardura hartuko du. Gainera, (...) andrearekin bizi da, eta berak ere egoitza baimena dauka. 2003ko martxoaren 10ean, Gasteizko batura zibilen udal erregistroan erregistratu ziren biak, izatezko bikote gisa. Ez zuen lan kontraturik aurkeztu, inguruabar pertsonalak direla-eta; aitzitik, Udalari gizarte txostena eskatu zion eta bere ardura bere alabak hartuko zuela adierazi zuen.



Osasun-arazoak zituen, gorputzaren ezker aldeari eragin zion eta mintzamenik gabe utzi zuen paralisia pairatu baitzuen eta 2005ean bihotzeko larria izan baitzuen. Orain dela gutxi, 2007ko urtarrilean, beste miokardio bihotzeko larri bat izan du, bihotzeko ondoko anginarekin eta bihotz-hodietako lesio gogorrekarekin; horien ondorioz, tratamendua jarraitu eta bere osasuna etenik gabe zaindu behar du. Bestalde, dagoeneko 63 urte ditu.

2.- Aipatutako araudia aplikatzeko, Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiak jarraibide batzuk –c.4) atala– eman zituen, 2005eko ekainaren 22koak. Jarraibide horien arabera, udaleko gizarteratze txostenak ondorengo hauek jaso behar ditu:

- langile atzerritarra udalerrri horretan zenbat denboraz bizi den (Udalak denbora horri dagokionez duen datua ere zehaztu behar da).
- dituen bizitza bitartekoak.
- udalerrria barne hartzen duen autonomia erkidegoko hizkuntza ofizial(ar)en ezagutza maila.
- langile atzerritarraren txertatzea bere inguruko gizarte sareetan.
- langile atzerritarrak edo haren senitarteko zuzenek parte hartu duten edo ari diren heziketa programak edo lanbide trebakuntzakoak, hala erakunde pribatuetan nola publikoetan, eta
- errotze maila zehazteko balio dezaketen bestelako alderdiak, posible bada, bere bizilekua den etxeari dagozkionak barne.

Txosten hau, ezartzen denez, ez da loteslea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 83 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Atzerritarraren gizarteratzea egiaztatzen duen txostena bidaltzeaz gain, eta baldin eta txosten hori positiboa bada, jarraibideek ezartzen dutenez, atzerritarra lan kontratua izateko betebeharretik salbuetsita gera dadila gomenda dezake Udalak, betiere bizitzeko bitarteko nahikoak dituela egiaztatu badu atzerritarrak.

3.- Gobernuaren Arabako Ordezkaritzak, 2006ko irailaren 1ean, aurkeztu zen berraztertze errekurtsoa gaitzestea erabaki zuen, eta, beraz, 2006ko ekainaren 1eko ebazpena baietsi egin zuen, salbuespenezko inguruabarrengatik aldi baterako egoitza-baimena ukatzekoa. Aipatzen dituen arrazoiak dira Espainian hiru urtez bizi izana eta beste atzerritarrekin famili loturak izatea egiaztatzen duen arren, ez daukala gutxienez urte bateko lan kontraturik eta ez duela aurkeztu Gasteizko Udalaren txostenik, non errekurtso egilea lan kontratua izateko



beharretik salbuetsi dadila gomendatzen den, betiere bizitzeko bitarteko nahikoak dituela egiaztatzen badu. (...) jaunak administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu du ukapenaren aurrean.

Kexaren xedea da, hortaz, errotze eskaerari eransteko txostena zenbaitetan eskatu izan arren Udalari –berariaz adierazten zen errekurtsu egilea lan kontatua izateko beharretik salbuetsita geratzearen gomendio erantsiko zela–, Udalak ez diola bere eskaerari erantzun eta ez duela eduki hori sartu.

Gasteizko Udaleko Gizartegintza Sailak 2006ko otsailaren 3an egin zuen gizarte txostenak honako gai hauek jasotzen ditu: familiaren eraketa, osasun arloko datuak, eskola datuak, hezkuntza arloko datuak eta laneko datuak, etxebizitzaren egoera, familiako integrazio maila, gizarte zerbitzuekin duen harremana, aurkeztutako arazoa eta eskaera, gizarte diagnostikoa, esku-hartze plana eta gizarte laguntzailearen txostena. Aurkeztutako arazoa eta eskaerari buruzko atalean adierazten denez, *“agiriei dagokienez egoera irregularrean dagoen ekuadortarra da, errotze txostena eskatzen duena”*. Gizarte diagnostikoari dagokionez, txostenak honakoa aipatzen du: *“Ekuadorretik datorren familia da, eta familiako kideak egoera erregularrean daude, (...) izan ezik; (...)k osasun egoera korapilatsua du. (...)ren alabak eta bere bikoteak diru-sarrerara nahikoak dituzte eguneroko bizitzako gastuak estaltzeko, eta horregatik, gaur egun ez dute prestazio ekonomikorik jasotzen*. Esku-hartze planaren inguruan hau esaten du: *“errotze txostena egitea”*. Gizarte laguntzailearen proposamenari dagokionez, txostenean hau aipatzen da: *“gaia erakunde publikora pasatzea”*.

- 4.- Kexa hau behar bezala izapidetzeko, Arartekoak informazioa eskatu zion Udalari. Eskaera horretan zenbait aurregogoeta egin ziren jendearen eskaerei erantzuteko beharraz, eta Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiak emandako jarraibideak eta horietan gizarte txosten eskaerei erantzuteko ezarri zen eredia gogorarazi zitzaizkion Udalari. Bere erantzunean adierazi digunez, *“Iparralde Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak bi txosten egin ditu (...) jaunak eskatuta 2006/2/3an eta 2006/3/27an*.

Txosten horien xedea da interesdunak txosten horiek Gobernuaren Arabako Ordezkaritzan aurkeztea, errotzeagatik egoitza baimenaren izapideak egiteko, 4/2000 LOren –atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunak eta euren gizarteratzea arautzen duena, 2393/2004 EDk onartutakoa– Araudiko 45.2 b) eta 46.2) artikuluetan ezarritakoaren arabera.



Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizartegintza Sailean zerbitzuak eta prestazioak izapidetzeko eta beste erakunde edo instituzio batzuetara bideratzeko erabiltzen den eredu normalizatu eta informatizatuan egin dira gizarte txostenak.

Txostenetan hainbat alderdiren inguruko informazio eguneratua jasotzen da: identifikazio datuak, familiaren eraketa, datu ekonomikoak, osasun arloko datuak, hezkuntza arloko datuak, laneko datuak, etxebizitzaren egoeraren datuak, gizarteko eta familiako integrazio maila, gizarte zerbitzuekin duen harremana, aurkeztutako arazoa, gizarte diagnostikoa, esku-hartze plana eta interesgarritzat hartzen diren bestelako datuak.

Esku artean dugun kasuan, gizarte laguntzaileak ez du barne hartu (...) jauna lan kontratua izateko beharretik salbuetsita geldi dadila gomendatzea, eta horregatik, alderdi hori ez du txosten batean ere islatu.

Arestian azaldutako guztiagatik pentsatzen dugu (...) jaunak aurkeztutako eskaerari erantzuna eman zaiola aipatutako gizarte txosten horiekin”.

- 5.-Gasteizko Udalaren erantzuna jakinarazi diogunean interesdunari, esan digu berak gizarte txosten bakarraren berri izan duela, 2006ko otsailaren 3koaren berri, alegia, eta ez duela inolako txostenik jaso lan kontratua izateko beharretik salbuetsita geratzearen gomendioa aipatzen duenik.

Gogoetak

- 1.- Kexaren sustatzailea zenbait alditan zuzendu zaio Gasteizko Udalari, eta errotzeagatiko egoitza baimenaren eskaerari eransteko, gizarte txostena eskatu zion Udalari. Gasteizko Udaleko Gizartegintza Sailak 2006ko otsailaren 3an egindako txostenean, aurkeztutako arazoa eta eskaera atalean, eskari gisa agertzen da errotze txostena. Esku-hartze planean ere, errotze txostena egitea eskatu zela ere jarduera gisa ageri da. Otsailaren 27an, eskaera bat aurkeztu zuen, oraingo honetan idatziz, eta bertan eskatzen zuen lan kontratua aurkeztetik salbuetsita geratzeko udalaren gomendioa jasotzen zuen txostena, Gobernuaren Ordezkaritzan aurkeztu ahal izateko. Eta 2006ko martxoaren 16an, Gizartegintza Sailari zuzenduriko idatzi baten bidez, erabaki bat emateko legezko betebeharra gogorarazi zion, bai eta eskaerei ez erantzuteak zituen ondorioak ere, eta espedientearen xedearen egiaztapena, erabakia emateko epeak aipatuz, eta berariazko ebazpenik ez egiteagatik sortzen diren ondorioak eskatu zituen.



Administrazioa behartuta dago prozedura guztietan berariazko erantzuna ematera eta hori jakinaraztera, prozedurei hasiera emateko modua edozein dela ere (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. artikulua). Lege bereko 89. artikuluan ezartzen denez, interesdunak eskatuta izapidetzen diren prozeduretan, ebazpena bat etorriko da interesdunak egindako eskaerekin. Hala eta guztiz ere, Udalak ez dio interesdunaren eskaerari erantzun, lan kontratua ez aurkezteko salbuespena gomendatzeko eskaerari edo, bestela, egoki irizten dion arrazoiak direla medio salbuespena gomendatzen ez duela berariaz erantzunez. Izan ere, erabaki horrek zilegi den interes bat mugatzea dakar (gorago aipatu den legearen 54. art.), eta nahitaezkoa da arrazoituta egotea. Gure informazio eskaeraren ondorioz Udalak bidali digun erantzunean aipatzen da gizarte laguntzailea lan kontratu bat izateko beharretik salbuetsita gelditzea ez gomendatzeari egoki iritzi diola. (...) jaunari ez zaio balorazio horren eta haren arrazoiketaren berri eman, eta horrek alegazioak aurkeztea eragotzi dio, hala nola, bere osasun egoerarekin lotura duten alegazioak.

- 2.-Errotzeari buruzko 2005eko ekainaren 22ko jarraibideetan, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioari atxikita dagoen Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiarenak, c.4) atalean, gizarteratzearen inguruko udal txostenaren edukia ezarri zen, eranskin gisa jaso den ereduaren arabera.

Jarraibideen eranskinean, atzerritarren gizarteratzeari buruzko udal txostenaren eredu bat jasotzen da, atzerritarren ohiko bizilekua den herriko udalak egin beharrekoa “errotzeagatiko egoitza baimenaren izapideak egiteko prozeduraren esparruan, 4/2000 Lege Organikoaren –atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunak eta euren gizarteratzea arautzen duena, 2393/2004 EDk onartutakoa– Araudiko 45.2 b) eta 46.2 c) artikuluetan ezarritakoaren arabera. Araudi horrek ezartzen ditu Espainian dauden atzerritarrei aldi baterako egoitza baimena, bisaren beharrik gabe, eman ahal izateko kasuak. Salbuespenezko kasu horiei dagokienez, aipatutako artikuluko 2. b) atalak honakoa aipatzen du: *errotzeagatiko egoitza baimena eman ahalko zaie gutxienez hiru urtez jarraian Espainian bizitzen egon direla egiaztatzen duten atzerritarrei, betiere Espainian eta beren jatorri herrialdean ez badute zigor aurrekaririk, langileak eta enpresaburuak sinatutako kontratua –gutxienez urte bateko iraupena duena– baldin badute eskaera egiteko unean edo bertan bizi diren beste atzerritar batzuekiko famili lotura dutela egiaztatzen badute edo, gizarteratzea ziurtatzeko, ohiko bizilekua duten herriko udalak egindako txostena aurkezten badute. Aipatutako araudiko 46.2.a) artikulua ezartzen duenez, errotzeagatiko aldi*



baterako egoitza baimenaren eskaerarekin batera, langileak eta enpresaburuak sinatutako lan kontratua aurkeztu beharko da, gutxienez urte beteko iraupena duena. Hala eta guztiz ere, artikuluko bereko 2. c) atalak ezartzen du ohiko bizilekua duen herriko udalak atzerritarra lan kontratua izateko beharretik salbuetsita gera dadila gomenda dezakeela, betiere, bizitzeko baliabide nahikoak dituela egiaztatzen badu.

Ereduak honako atal hauek ditu (lehen aipatu dugun txostenaren edukiaren berdinak): atzerritar interesduna Espainian zenbat urtez bizi izan den, atzerritar interesdunak dituen bizitzeko bitartekoak, autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialen ezagutza maila, inguruko gizarte sareetan duen txertatze maila, langile atzerritarra edo bere senitarteko zuzenak partaide izan dituzten hezkuntza programak edo lanbide heziketako programak, bestelako inguruabar interesgarriak (bere etxebizitzaren azalera eta bertan erroldatuta dauden pertsona kopurua, etab.).

Txostena, udalerrian duen errotzea egiaztatu delako, aldeko proposamenarekin bukatzen da, edo, bestela, kontrakoarekin. Aldekoa izango balitz, lan kontratua edukizetik salbuetsita gelditzeko gomendioa sartu behar da lan kontraturik aurkezten ez den kasuetan edo norberaren konturako lana izatearen kasuetan. Adinagatik edo beste motako arrazoiren batengatik osasun arazoak edo oztopo fisikoak, ezgaitasunak, osasun tratamenduak, tratamendu psikologikoak eta abar daudenean eta gizarte zerbitzuek, arazoi horiek direla medio, laneratzea ezinezkoa edo desegokia dela pentsatzen dutenean egin ohi da gomendio hori. Baita ikasten ari delako ere; ikastea, besteak beste, lan eta ikasketa munduan gaitasun handiagoa izateko positibotzat baloratzen da.

Txostenaren emaitza, arestian aipatu den moduan, ez da loteslea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 83 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kasu honetan, Gasteizko Udalak ez du jarraibideetan ezarritako eredia jarraitu, ez du esan txostena aldekoa ala kontrakoa den edo lan kontratua kontuan ez hartzea gomendatzen duen ala ez, eta ez ditu aipatu oinarri gisa hartu dituen arazoak. Gasteizko Udalaren jarduera horrek (...) jaunaren interesei kalte egiten die, aipatutako Lege Organikoaren aplikazio araudian eta Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideetan ezarritako edukia duen txostenik ezin izan baitu aurkeztu.



4.-Udalaren erantzunetik ondoriozta daiteke ez duela errotze kasuetarako ezarritako eredurik; Gizartegintza Sailean zerbitzuak eta prestazioak izapidetzeko eta beste erakunde edo instituzio batzuetara bideratzeko erabiltzen den eredu normalizatu eta informatizatuan egiten dira gizarte txostenak. Gure iritziz, udalek errotze prozeduretan parte hartzen dutenean, beharrezkoa da eredia behar berezi horietara egokitzea, batez ere Estatuko Administrazio Orokorrek horretarako jarraibideak eman dituztenean. Udalek beren txostenak egiteko duten autonomia gorabehera, aipatu beharra dago Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 3. artikulua berariaz adierazten duela administrazio publikoetan, beren harremanetan, lankidetzaren printzipioak agintzen duela, eta beren jardunean, eraginkortasun printzipioak eta herritarrei zerbitzua emateko printzipioak. Udalak beste administrazioekin lankidetzan aritzeko betebeharra du, batik bat araudiak (abenduaren 30eko 2393/2004 EDk) udalek gizarte txostenak egin behar dituztela ezartzen duenean.

Horrez gain, herritarrari zerbitzu egokia emateko betebeharra du. Kasu honetan, araudian eta Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideetan ezarritako edukiarekin txostenik egin ez duenez, herritarrari beharrezkoa ez den kaltea eragiten ari zaio. Bestetik, berriz, (...) jaunak berariazko eskaera egin du txostenean lan kontatua aurkezteko beharretik salbuetsita gera dadin eskatuz, baina ez du inolako erantzunik jaso.

Arartekoaren eginkizunen artean dago lege arloko betebeharrak oroitaraztea, administrazioaren zerbitzuen hobetzea lortzeko. Ildo horri jarraiki, erakunde honen aburuz, araudiak eta Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideek zehazten duten edukira egokitu behar zuen Gasteizko Udalak gizarte txostenaren eredia. Horrez gain, berariazko ebazpena eman behar zuen egin zitzaizkion eskaeren aurrean, eta eskatutakoari modu koherentean erantzun, hau da, atzerritarra lan kontratua izateko betebeharretik salbuetsita gelditzeko gomendioa barnea hartzea onartu ala ez (eta, ez onartzearen kasuan, arrazoiak eman), betiere bizitzeko bitarteko nahikoak dituela egiaztatu badu atzerritarrak, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. eta 89. artikulua aplikatuz. Gizarte txostena ez zuenez eredia egokitu eta kexa sustatu duenaren eskaerari erantzun ez dionez, administrazio publikoaren jarduna txosten batean jasotzen duten printzipio nagusiak hautsi egiten dira (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 3. artikulua), bai eta lege bereko 42., 54. eta 89. artikuluetan ezarritako betebeharrak ere.



Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten da:

11/2007 GOMENDIOA, apirilaren 23koa, Gasteizko Udalarari egina

(...) jaunaren eskaera ebatz dezala eta gizarte txostena egin dezala, 4/2000 LOren –atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunak eta euren gizarteratzea arautzen duena, 2393/2004 EDk onartutakoa– Araudiko 45.2 b) artikulua aplikatuz; artikulua hori araudi horretako 46.2 c) artikuluan ezarritako edukiari eta Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiak egindako jarraibideei egokitu beharko zaie.